



KORONABIRUSAREN AURREAN JARDUTEKO PROTOKOLOA

Koronabirusak eragindako alerta-egoera dela eta, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak neurri berriak hartu ditu kutsatzeak saihesteko eta COVID-19ren hedapena eteteko dinamikan laguntzeko.

Jarraian, hartutako neurriak laburbiltzen dira:

- Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak herritarrei arreta bermatuko die bere zerbitzu guztietan, baliabide telefoniko eta telematikoen bidez. Aldiz, berehalako arreta presentziala behar duten pertsonen dagokienean, aurretiko hitzorduaren bidez soilik emango zaie arreta.
 - **Gizarte zerbitzuak**
 - ✓ E-maila: bsocial.mdurango@bizkaia.org
 - ✓ Telefonoa: 94 620 04 92 / 629 40 86 69
 - ✓ Larrialdiak (24 ordu): 94 402 50 50
 - **Hirugarren adina**
 - ✓ E-maila: terceraedad.mdurango@bizkaia.org
 - ✓ Telefonoa: 94 620 05 46
 - **Zaintzaileak – Zaindu:**
 - ✓ E-maila: zaindu.mdurango@bizkaia.org
 - ✓ Telefonoa: 94 603 00 46
 - **Adikzioen prebentzioa:**
 - ✓ E-maila: prevencion.mdurango@bizkaia.org
 - ✓ Telefonoa: 94 620 05 20
 - **Behargintza – Prestakuntza eta enplegua:**
 - ✓ E-maila: behargintza.mdurango@bizkaia.org
 - ✓ Telefonoa: 94 623 25 22



- **KIUB – Kontsumitzailearen arretarako bulegoa:**
 - ✓ E-maila: omic.mdurango@bizkaia.org
 - ✓ Telefonoa: 94 620 27 07
- **Euskara:**
 - ✓ E-maila: euskera.mdurango@bizkaia.org
 - ✓ Telefonoa: 94 627 86 40
- **Administrazio Orokorra:**
 - ✓ E-maila: mdurango@bizkaia.org
 - ✓ Telefonoa: 94 681 81 16
- Martxoaren 16tik aurrera, 24 orduz telefono bat jarriko da behar guztiei erantzuteko eta kasu bakoitza dagokion zerbitzura edo profesionalera bideratzeko.
- Gizarte Zerbitzuetako egoitzaren kanpoaldean (Bruno Mauricio Zabala, 9). Atzeraezinekoa den dokumentazioa bertan entregatu ahal izango da.
-
- Gurutze Gorriarekin koordinatuta, telefono bidezko laguntza-sistema bat eta etxez-etxeko laguntza-sistema bat definituko da, pertsona guztien oinarrizko premiak betetzen saiatzeko, hala nola:
 - Telefono bidezko jarraipena, bakardadean, isolamenduan, desgaitasunen bat duten pertsonen eta egoera bereziki ahulean dauden errefuxiatuei.
 - Elikagaien eta oinarrizko higiene-artikuluen horniduraren kudeaketa.
 - Paziente kronikoei bereziki zuzendutako laguntza farmakologikorako sarbidea, mediku batek agindutako farmakoetara mugatua.



- Gaueko Harrera Zerbitzuarekin koordinazioa areagotu egin da etxerik gabeko pertsonak babesteko eta funtsezko zerbitzu hori bermatzeko, beharrezko bitartekoak har daitezela eskatu da, zehazki, gutxieneko distantzia 1,5 metrokoa izatea, Eusko Jaurlaritzak ezarritako segurtasun-neurriak betez. Instalazioa itxi behar izanez gero, gune bat antolatuko da Gurutze Gorriarekin lankidetzan, osasun-alertak irauten duen bitartean etxerik gabeko pertsonen gaua non eman izan dezaten bermatzeko.
- Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak eskura dituen baliabide guztiak jarriko ditu, funtsezko zerbitzu publikoa den hondakin organikoen bilketa bermatzeko. Lehen neurri gisa, instalazioen eta ibilgailuen garbiketa areagotu da, eta prebentzio neurriak zorrotz dira zerbitzuko langileen artean. Era berean, lan-poltsa bat prestatuko da, egon daitezkeen laneko bajak berehala betetzeko eta zerbitzua normaltasunez bermatzeko.
- Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoako kirol instalazioak (Atletismo pista, Belodromoa eta Trinketea) erabat itxita egongo dira, bestelako abisua eman arte.
- Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak, hemendik aurrera, bere bitarteko guztiak Eusko Jaurlaritzaren esku jarriko ditu.

Prebentzio-neurri horiek guztiak salbuespenezko neurriak dira, osasun-agintarien gomendioei jarraituz hartu dira, eta bestelako abisua eman arte mantenduko dira. Guzti hori, kutsatzeak saihesteko eta COVID-19ren hedapena eragozteko dinamikan laguntzeko. Halaber, beharrezkoa izanez gero, ez da baztertzeko neurri berriak hartzea.

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgotik dei egiten dugu banakako erantzukizun eta erantzunkizun kolektiborako eta zeregin horretan pertsona guztien laguntza izateko. Eusko Jaurlaritzak eta Osakidetzak unean-unean egiten dituzten gomendioak aintzat har daitezela eskatzen dugu. Neurri guztiak betetzea ezinbestekoa da koronabirusaren hedapenari eusteko eta osasun alerta egoera hori lehenbailehen gainditzeko.



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Abadiño, 2020ko martxoaren 14a